

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Aurrekontu eta Finantza Saileko diputatuaren 500/2014 Foru Agindua, uztailaren 18koa, aldatzen duena 560 eredua, elektrizitatearen gaineko zergarena. Eredu hori Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 15eko 205/2012 Foru Aginduak, fabrikazioaren gaineko zerga berezien eredu batzuk onartu eta haiek kudeatzeko arau batzuk eguneratu zituenak, onartu zuen

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko ekonomia ituna onartzen duenak, 33. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, zerga bereziak itundutako tributuak dira, eta Estatuak unean-unean ezartzen dituen arau substantibo eta formalen bidez arautuko dira. Hala ere, foru aldundiek eskumena dute aitortpena eta diru sarrerak egiteko ereduak onartzeko, zeinetan, gutxienez, lurralde erkidegokoetan jasotako datu berdinak agertuko diren; horrez gain, eskumena dute likidazio aldi bakoitzeko diru sarrera epeak finkatzeko, baina horiek ezin dira oso desberdinak izan Estatuaren administrazioak finkatutakoen aldean.

Abenduaren 28ko 38/1992 Legea, zerga bereziena, aldatu egin zen urriaren 29ko 16/2013 Legearen bidez, zeinak beste zerga onura batzuk erantsi zituen elektrizitatearen gaineko zergari dagokionez.

Otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak onartutako zerga berezien Arabako araudia aldaketa horri egokitzeko xedez, otsailaren 4ko 1/2014 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua eman zen.

Orain, 560 eredua aldatu behar da, elektrizitatearen gaineko zergarena, aipatutako araudian izandako aldaketetara egokitze aldera.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 15eko 205/2012 Foru Agindua, fabrikazioaren gaineko zerga berezien eredu batzuk onartu eta haiek kudeatzeko arau batzuk eguneratzen dituena.

I. eranskina, 560 ereduarena (Elektrizitatearen gaineko zerga. Autolikidazioa), foru agindu honen eranskineko ereduarekin ordeztuko da.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 18a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
AITOR URIBESALGO LORENZO

Ogasun zuzendaria
JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO

560 EREDUAREN JARRAIBIDEAK

1 Identifikazioa

Subjektu pasiboaren identifikazioa idatziko da. Horretarako, identifikazio txartela itsatsiko da, dokumentuaren ale bakoitzean horretarako dagoen lekuan. JEK atalean, Jarduera eta Establizimendu Kodea (JEK) adierazi behar da.

2 Sortzapena

Ekitaldia: aitopenean adierazitako zergaldiari dagokion urtearen lau zifrak jarri behar dira.

Zergaldia

1H= 1. hiruhilekoa	2H= 2. hiruhilekoa	3H= 3. hiruhilekoa	4H= 4. hiruhilekoa
--------------------	--------------------	--------------------	--------------------

Adibidea: 2013ko 4. hiruhilekoa

Ekitaldia: 2013

Zergaldia: 4H

01 = urtarrila	02 = otsaila	03 = martxo	04 = apirila
05 = maiatza	06 = ekaina	07 = uztaila	08 = abuztua
09 = iraila	10 = urria	11 = azaroa	12 = abendua

Adibidea: 2013ko urria

Ekitaldia: 2013

Zergaldia: 10

3 Likidazioa

5.1 Salbuespenik gabeko zerga oinarria: otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Arauzaren Dekretuaren, zerga berezienaren (Zerga berezien Araua), 66. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztu behar da zenbateko hau. Eurotan eta bi zifra hamartarrekin adierazi behar da, txikiagoa edo handiagoa irribilduta, hirugarren zifra hamartarra 5 baino txikiagoa edo handiagoa den kontuan izanik.

5.2 Zerga tasa: Zerga berezien Arauaren 67. artikuluan ezarritakoa izango da.

A.1 kuota: zerga oinarria (5.1 laukia) eta zerga tasa (5.2 laukia) biderkatzearen emaitza izango da.

5.3 Salbuespena duen zerga oinarria: salbuespenik gabeko zatiari dagokion zenbateko da. Eurotan eta bi zifra hamartarrekin adierazi behar da, txikiagoa edo handiagoa irribilduta, hirugarren zifra hamartarra 5 baino txikiagoa edo handiagoa den kontuan izanik zerga berezien Araua, 66. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztu behar da. Alpatutako arauaren 68. artikuluan aurreikusitako dagoen salbuespen partziala zergaldian aplikatzearen ondorioz lortuko da.

5.4 Zerga tasa: Zerga berezien Arauaren 67. artikuluan ezarritakoa izango da.

A.2 kuota: zerga oinarria (5.3 laukia) eta zerga tasa (5.4 laukia) biderkatzearen emaitza izango da.

A kuota guztira: A.1 eta A.2 kuoten batura izango da.

5.5 Zerga oinarria: Zerga berezien Arauaren 67.2.a) artikuluan ezarritako zerga tasa aplikatu behar zaion MW kopurua jarri behar da; bi zifra hamartarrekin adierazi behar da, txikiagoa edo handiagoa irribilduta, hirugarren zifra hamartarra 5 baino txikiagoa edo handiagoa den kontuan izanik.

5.6 Zerga tasa: Zerga berezien Arauaren 67.2.a) artikuluan ezarritakoa izango da.

B.1 kuota: zerga oinarria (5.5 laukia) eta zerga tasa (5.6 laukia) biderkatzearen emaitza izango da.

5.7 Zerga oinarria: Zerga berezien Arauaren 67.2.b) artikuluan ezarritako zerga tasa aplikatu behar zaion MW kopurua jarri behar da; bi zifra hamartarrekin adierazi behar da, txikiagoa edo handiagoa irribilduta, hirugarren zifra hamartarra 5 baino txikiagoa edo handiagoa den kontuan izanik.

5.8 Zerga tasa: Zerga berezien Arauaren 67.2.b) artikuluan ezarritakoa izango da.

B.2 kuota: zerga oinarria (5.7 laukia) eta zerga tasa (5.8 laukia) biderkatzearen emaitza izango da.

B kuota guztira: B.1 eta B.2 kuoten batura izango da.

Kuota likidoa, guztira: A eta B kuoten batura izango da.

Autolikidazioak aurkeztu eta kuota ordaintzeko epeak

Sortzapenak izan diren hila edo hiruhilekoa bukatu eta ondorengo hogeita bost egun naturalekoak izango dira.

INSTRUCCIONES MODELO 560

1 Identificación

Se consignará la identificación del sujeto pasivo mediante la adhesión de una etiqueta identificativa, en el espacio reservado al efecto, en cada uno de los ejemplares. En el apartado C.A.E. se hará constar el Código de Actividad y Establecimiento (CAE).

2 Devengo

Ejercicio: deberán consignarse las cuatro cifras del año al que corresponde el período por el que se efectúa la declaración.

Período

1T= 1. trimestre	2T= 2. trimestre	3T= 3. trimestre	4T= 4. trimestre
------------------	------------------	------------------	------------------

Ejemplo: 4. trimestre 2013

Ejercicio: 2013

Período: 4T

01 = enero	02 = febrero	03 = marzo	04 = abril
05 = mayo	06 = junio	07 = julio	08 = agosto
09 = septiembre	10 = octubre	11 = noviembre	12 = diciembre

Ejemplo: octubre 2013

Ejercicio: 2013

Período: 10

3 Liquidación

5.1 Base imponible sin exención: la cuantía determinada conforme al artículo 66 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero de Impuestos Especiales (Norma de II.EE.), expresada en euros con dos cifras decimales, redondeando por defecto o por exceso, según que la tercera cifra decimal sea o no inferior a 5.

5.2 Tipo impositivo: el señalado en el artículo 67 de la Norma de II.EE.

Cuota A.1: el producto de multiplicar la Base Imponible consignada en la casilla 5.1 por el tipo impositivo consignado en la casilla 5.2.

5.3 Base imponible con exención: la cuantía, expresada en euros con dos decimales, redondeando por defecto o por exceso, según que la tercera cifra decimal sea o no inferior a 5, determinada conforme al artículo 66 de la Norma de II.EE., sobre la que resulta de aplicación en el período la exención parcial prevista en el artículo 68 de la citada Norma, por la parte no exenta.

5.4 Tipo impositivo: el señalado en el artículo 67 de la Norma de II.EE.

Cuota A.2: producto de multiplicar la Base Imponible consignada en la casilla 5.3 por el tipo impositivo consignado en la casilla 5.4

Total cuota A: suma de las cuotas A.1 y A.2.

5.5 Base imponible: se consignará con dos decimales, redondeando por defecto o por exceso, según que la tercera cifra decimal sea o no inferior a 5, los MW a los que les es de aplicación el tipo impositivo establecido en el artículo 67.2.a) de la Norma de II.EE.

5.6 Tipo impositivo: será el señalado en el artículo 67.2.a) de la Norma de II.EE.

Cuota B.1: el producto de multiplicar la Base imponible consignada en la casilla 5.5 por el tipo impositivo consignado en la casilla 5.6.

5.7 Base imponible: se consignará con dos decimales, redondeando por defecto o por exceso, según que la tercera cifra decimal sea o no inferior a 5, los MW a los que les es de aplicación el tipo impositivo establecido en el artículo 67.2.b) de la Norma de II.EE.

5.8 Tipo impositivo: será el señalado en el artículo 67.2.b) de la Norma de II.EE.

Cuota B.2: el producto de multiplicar la Base imponible consignada en la casilla 5.7 por el tipo impositivo consignado en la casilla 5.8.

Total cuota B: la suma de las cuotas B.1 y B.2.

Cuota líquida total: la suma de las cuotas A y B.

Plazos de presentación de las autoliquidaciones e ingreso de las cuotas

Dentro de los veinticinco primeros días naturales siguientes a aquél en que finaliza el mes o trimestre en que se han producido los devengos.